

Eraikuntza-obra gehienetan, elektrizitatea erabiltzen da makinak martxan jartzeko eta obra bera argiztatzeko.

Korronte elektrikoarekin kontaktu zuzena edo zeharkakoa izateagatik gertatutako lan-istripuen kopurua oso handia ez bada ere, gertatuz gero, horien larritasuna nahiko handia da.

Tentsio-lineatan lan egiten baduzu, **GOGORATU**

Urrezko 5 arauak

Arrisku elektrikoak duten lanak egiteko, honako urrats hauek bete behar dira, **lana segurtasunez egiteko**:

1



Deskonexioa.
Eten efektiboa

Berrelikadura
aurreikusi



2

3



Tentsiorik ez dagoela
egiaztatu

Lur-konexioa eta
zirkuitulaburra



4

5



Lan-eremua
seinaleztatu

Informazio gehiago:

Arrisku elektrikoaren eskuliburua eraikuntzaren sektorean, FLCk egina

Eskuliburu honek elektrizitateari buruzko kontzeptu orokorrak deskribatzen ditu, eta kontaktu elektriko batek esposiziopeko pertsonarengan dituen ondorioak azaltzen ditu. Instalazio elektriko baten oinarriko osagaiak eta arriskua saihesteko instalazioek eta lan-ekipoek bete behar dituzten baldintzak ere zehazten ditu. Gainera, eraikuntzako obretan ohikoak diren egoera batzuk aztertzen dira, eta arriskuak minimizatzeko prebentzio-neurriak, aholkuak eta jardunbide egokiak proposatzen dira.

Deskargatu
eskuliburua
hemen



Sartu triptiko honetan
eta deskargatu beste
hizkuntza koofizial nahiz
atzerriko batzuetan



www.lineaprevencion.com

Instalazio elektrikoak

ERAIKUNTZAKO OBRETAN



Korrante elektrikoaren ondorioak

Elektrokuzioa: korrantea pertsonaren gorputzetik pasatzen denean eta pertsona hori hil egiten denean gertatzen da.

Fibrilazio bentrikularra: bihotza normala ez den erritmoan mugitzen denean gertatzen da.

Tetanizazioa: giharren kontrolik gabeko mugimendua da.

Larruzaleko erredurak: intentsitatearen eta esposizio-denboraren arabera izango dira.

Langile baimendua edo kualifikatua

Instalazio elektriko batean egin behar diren lanen arabera, gaitasun desberdinak dituzten langileek egin behar dituzte. Hauek bereiz daitezke:



- **Langile baimendua:** arrisku elektrikoaren duten zeregin jakin batzuk egiteko enpresaburuaren baimena duen langilea da, zeregin horiek modu egokian egiteko gaitasuna baitu.
- **Langile kualifikatua:** instalazio elektrikoaren arloan ezagutza espezializatuak dituen pertsona baimendua, arlo horretako prestakuntza egiaztatua duelako, profesionala edo unibertsitarioa, edo bi urte edo gehiagoko esperientzia ziurtatua duelako.

Prebentzio-neurriak

Saihestu tentsio elektrikoaren duten instalazioekin lan egitea.

Ziurtatu inork ezin duela tentsioz hornitu lanean ari zaren instalazioa.

Gogoratu kableak ez direla konpondu behar zinta isolatzailearekin: ez egin horrelako loturarik.

Ez erabili larako edo kable akastunak dituzten ekipoa.

Egiaztatu lur-hartunea lurrean ondo sartuta dagoela. Ahal baduzu, neurtu haren erresistentzia.

Mantendu material erregaiak edo sukoiak elektrizitate-iturrietatik urrun.

Ahal den neurrian, saihestu lurreko kableak. Ezin bada, babestu eraso mekanikoetatik.

Indusketarik egin behar baduzu, egiaztatu ez dagoela eroale elektrikorik lurperatuta.

Gogoratu kableak ez direla konpondu behar zinta isolatzailearekin: ez egin horrelako loturarik.



Aldizka, egiaztatu etengailu diferentziala (gehienez 30 mA-ko intentsitatekoa) behar bezala dabilela.

Jarri CO₂-ko su-itxalgailu bat koadroaren edo sorgailuaren ondoan.

Ez da kableen gehieneko intentsitatea gainditu behar (sekzioaren arabera aldatzen da).

Kable luzagarriak erabat askatu behar dira, ahalik eta potentzia handienean lan egiteko.

Aireko linea elektrikorik badago, galibo-kontrolako portikoak jarri behar dira, sarbidea mugatzeko.

Bota hondatutako larakoak.

Ez erabili elementu elektrikorik kanpoan, IP 45 koderik ez badu.

IP eta IK kodeak

Ekipo elektrikoaren inguratzaileek markatuta eraman behar dituzte babes-indizeak (solidoen aurkako IP babesa eta inpaktu mekanikoaren aurkako IK babesa).

IP kodea

Bi zifra bereizi dira. Eraikuntzaren sektorean, lehenengo zifrak 4ko gutxieneko balioa izango du (1 mm-tik gorako gorputz solidoen aurka babestua), eta bigarren zifrak, berriz, 5eko gutxieneko balioa (ur-zorrotaden aurka babestua). IP45 izenez ezagutzen da. Informazio gehigarri gisa gehitzen diren letrak egon daitezke.